



EAetik atzerrira bidalitako esportazioak %5,1 jaitsi ziren 2024an


ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Milioi euro

BATEZ BESTEKO HAZKUNDEA

2024

-%5,1




Eustatek argitaratutako informazioaren arabera, 2024an atzerrira esportatutako ondasunen kopurua %5,1 murriztu zen aurreko urtearekin alderatuta. Guztira, salmentak 31.000 milioi eurora hurbildu ziren, serie historikoko hirugarren baliorik handiena, aurreko bi ekitaldien emaitzek bakarrik gainditu dutena. Analisi zehatzak agerian uzten du salmenten murrizketa produktu energetikoen salmentan zein gainerako

produktuetan gertatu zela. Lehenengo kasuan, jaitsiera %1,4koa izan zen, eta bigarrenean, berriz, %5,4koa.

Inportazioei dagokienez, emaitzak positiboagoak izan ziren eta igoera txiki bat izan zen, %0,9koa, produktu energetikoen erosketak izan zuen hazkunderari esker (%4,0), gainerako produktuek profil laua erakutsi zuten bitartean (%-0,1). Kasu honetan, bigarren daturik altuena da, 2022koaren ondoren.


ESPORTAZIO EZ ENERGETIKOAK

Milioi euro



ENERGIAKO ESPORTAZIOAK

Milioi euro



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2024

| Herrialdea | % |
|----------------|------|
| Frantzia | 15,7 |
| Alemania | 14,5 |
| Erresuma Batua | 7,0 |
| AEB | 6,4 |
| Italia | 5,8 |
| Belgika | 5,0 |
| Portugal | 4,5 |
| Herbehereak | 3,7 |
| Mexiko | 2,7 |


Herrialdekako azterketaren arabera, Frantzia izan zen EAEko ondasunen helmuga nagusia atzerriko herrialdeen artean eta Alemaniari lehen postua kendu zion, haren ekonomiak ahulezia erakutsi baitzuen urtean zehar. Europakoak ez diren herrialdeen artean, AEBak laugarren postura jaitsi ziren, jaitsiera handiarekin (-%27,9), batez ere erregai mineralen salmenta txikiagoagatik (-%69,2), baina baita gainerako ondasunena ere (-%18,6).

ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2024

| Arantzel taldea | % |
|---------------------------------|------|
| Ekipamendu ondasunak | 49,0 |
| Makinak eta aparatuak | 21,9 |
| Garraio materiala | 27,1 |
| Metal arruntak eta manufakturak | 21,4 |
| Produktu mineral, energetikoak | 6,6 |
| Plastikoa eta kautxua | 5,9 |
| Nekazaritzako produktuak | 5,3 |
| Produktu kimikoak | 2,9 |
| Papera | 2,6 |

Esportatutako ondasun motari dagokionez, salmenten ia erdia (gutzizkoaren %49,0) ekipamendurako ondasunei dagokie, atalaren barnean makinak eta aparatuak (%21,9) eta garraio materiala (%27,1) daudelarik. Metal arruntek eta horien manufakturek ere leku nabarmena dute rankingean (%21,4). Gainerako taldeek aipatutakoak baino askoz ehuneko txikiagoak izan zituzten. Adibidez, erregai mineralak %6,6 bereganatu zuten.

INPORTAZIOAK GUZTIRA Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDOA GUZTIRA Milioi euro

